intxaurrondo

# Ilusioz betetako jaunartzea

Urtero bezala udaberri garaian, haurrek bere lehen jaunartzea ospatzen dute ilusioz beterik. Maria Auxiliadora parrokian, 9 eta 10 urteko 62 neska-mutilek egin dute jaunartzea maiatzaren 7an eta 14ean. Iazko kopuruaren azpitik badago ere, haur asko dira sakramentu hau hartzen dutenak.

Jaunartzea zortzik soilik egin dute euskera hutsean, 19k aldiz bi hizkuntzatan egin dute. Maria Auxiliadora ikastetxea, Intxaurrondo ikastola, Zurriola ikastola eta Jesuitetakoak dira haurrak.

Mari Karmen katekistaren hitzetan, *«gurasoen parte hartzea bultzatu da, oso garrantzitsua baita sakramentuaren garrantziaz jabetzea».* Haur guztiek beren parte hartzea izatea ere bilatu da, eskaintza txikien bitartez.

NAGORE NIRASTORZA (TFNOA.: 285749)



Giro ederrean ospatu ziren jaunartze hauek. Meza eman zuten apaizak, Mikel Uriarte, Jesus Uria eta Tomas izan ziren.

gros-ulia

**Zipotz jaietako Batzordea** osatu da eta programa oso aurreratuta daukate: antzerkia, dantzaldiak, kontzertuak... Jaien azken eguna, iaz bezala, euskal eguna izango da eta besteak beste, bertsolariak, herri kirolak... eta bukatzeko dantzaldia izango da.

**Lagun Garbiak** elkarteko mus txapelketa finala joan den ostiralean izan zen. Txapeldunak Luis Zurutuza eta Alberto *«Ponpi»* izan ziren, hauek, elkarteko txapela eta trofeoaz gain, mus txapelketa aurremundialerako gonbidapena eraman dute. Guztira 64 bikotek parte hartu zuten.

**Merkatua** bota ondoren egingo den eraikuntza berrian, beheko solairuan elikadura saila jarriko da. Guztira 312 metro karratu ditu sailak eta merkatuko saltzaileek bertan saltzeko aukera izango dute prezio bat ordainduz Odon Elorzak adierazi duenez. Udaletxeak, saltzaileei 312 m² horien banaketa-planoa egitea eskatu die. Obrak egin bitartean non kokatuko diren ez dago argi.

ERDIKOA TABERNA
Intxaurrondo, 59 • Tfnoa.: 28 62 99

Fussion

OSPAKIZUNETARAKO ARROPA
Kolon Pasealekua, 27 Gros- DONOSTIA

eizmendi
BURDINDEGIA
Tirafondoak • Torlojuak
Burdinesiak • Iltzeria
Sukaldeko bateria
Baxerak • Kristala
Eraikuntzarako burdineria
Egia, 13 • Tfnoa.: 27 88 37

KIROL MEDIKUNTZA
"EUTSI"
EUTSI
Kirol medikuntza
ARANZABAL SENDAGILEA
GORROTXATEGI SENDAGILEA
Kale Berria 15 - Tfnoa.: 290447